



GIPUZKOAKO ERREPIDE BIDEZKO BIDAIARIEN GARRAIO ZERBITZU PUBLIKO ERREGULARRAK HARMONIZATZEKO ERREGELAMENDUA APLIKATZEKO AZALPENAK. WEB

1. ZAKURRAK: MUTURREKOA, ASEGURU-POLIZA ETA KOTXEAK/ORGATXOAK

Ontzietan ez doazen zakurrek ibilgailuaren plataforman bidaiatu ahal izango dute hurrengo baldintza guztiak betez gero:

- Animalien ezaugarriei egokitutako uhal batez lotuta egongo dira.
- Ene oro zaintzailearekin ukipen fisikoa mantenduko dute.
- Muturrekoa jarrita edukiko dute.
- Baimendutako albaiari batek emandako osasun-txartela fisikoki eramango dute.
- Erantzukizun zibileko aseguruia izango dute.
- Indarrean dagoen legedian aurreikusitako higie, osasun-egoera eta segurtasun-baldintzak bermatuko dira.

Beraz, gidariak adierazitako osasun-txartela eta aseguru poliza erakustea eskatzeko eskumena izango du, pertsoneri edo ondasunei kalte eragiten dien arazoren bat gertatuz gero edota bestelako arrazoiengatik beharrezkoa baderitzo.

• **Muturrekoa**

Erregelamenduaren arabera, ontzietan garraiatzen ez diren zakurrek muturrekoa eraman behar dute, nahiz eta ibilgailuaren plataforman bidaiatu ez. Hala ere, zakurrak eramatea ez debekatzeko asmotan, ontzi kontzeptuaren interpretazio zabala egingo da; hortaz, poltsetan, saskietan, kapazuetan eta antzekoetan sartuta eramatea onartuko da.

Beraz, bi aukera daude:

- Zakurra poltsan, saskian, kapazuan eta antzekoan eramatea, muturrekorik eta uhalik gabe.
- Zakurra besoetan eramatea, inongo ontzirik gabe, baina muturrekoa eta uhala jarrita.

Lurrean doazen zakur guztiak uhalarekin lotuta eta muturrekoa jarrita igoko dira.

• **Erantzukizun zibileko aseguruia**

Ibilgailuetara igo daitezkeen zakurrak ez direnez arriskutsuak, ez dute zertan aseguru poliza berezia izan. Hortaz, jabeek erantzukizun zibileko aseguruia izatearekin nahikoa da; hau da, nahikoa litzateke ibilgailuetara animaliarekin igo nahi dutenek etxeko aseguru polizako estalduren artean animaliak eragin ditzakeen kalteak barne izatea.

• **Animaliak daramatzaten kotxeak/orgatxoak debekatzea**

19. artikulua arabera. "Umeen kotxe eta aulkietarako sarbidea":

"Ez da onartuko kotxe edo aulki irekirik sartzea, adingabea garraiatzen ez dutenean"



Animaliak daramatzaten kotxetxoak/orgatxoak, artikuluko honetan adierazitakoarekin parekatuko dira, eta, beraz, ez dira ibilgailuetan onartuko.

2. IBILGAILUETARA SARTZEKO DEBEKUAK ETA MUGAK

Sarbide-mugak edo zehaztapenak:

- **Scooters-ak eramatea**

Scooter-arekin bidaiatzen dutenei ez zaie printzipioz segurtasun arrazoiengatik sarrera ukatuko, berariaz debekatuta ez daudelako; izan ere, horrelako moto edo scooter gehienek gurpil-aulki elektriko askok baino pisu gutxiago dute. Hala ere, ibilgailu barruko erabilerak gainerako bidaiariak arriskuan jar baditzake, segurtasun arrazoiengatik scooter-en sarbidea debekatu ahal izango da. Gurpil-aulkiekiko, haur-aulkiekiko eta bizikletekiko lehentasunari dagokionez, umeaulkietara asimilatuko ditugu. Beraz, gurpil-aulkiek lehentasuna izango dute scooterekiko, baina hauek bizikletekiko. Geraleku berean haur-kotxe edo haur-aulki bat eta scooter bat batera gertatzen badira, lehen iritsi denak izango du lehentasuna.

- **Haurren bizikletak sarbidea**

Erregelamenduan haurren bizikletak fardeltzat hartu dira; aldiz, tamaina ezberdinak dituztenez, horren arabera bereizi beharko lirateke. Horrela, bada, jarraituko den irizpidea hurrengo da:

1. Haurra eta heldua bizikletekin igotzen badira, ondorio guztietarako, txirrindu biak bizikletatzat hartuko dira, haurra pertsona autonomotzat hartzen delako; eta, ondorioz, bere bizikleta ezin delako onartu jostailu edo fardel moduan.
2. Haurra bizikletarekin badoa, baina heldua aldiz bizikletarik gabe, haurraren txirrindua fardeltzat hartuko da (jostailutzat); eta ez da kontuan hartuko bizikleta kopuruan

- **Monozikloen sarbidea**

Monozikloak bizikleta tolesgarriekin parekatuko dira, beraz fardelak direla ulertuko da, eta ondorioz, ibilgailuetan sartzeko fardelak dituzten baldintza berak izango dituzte.

- **Erosketako organ sarbidea**

Erregelamenduan berariaz adierazten da bidaiariak zutik doazen garraiobideetan erosketako organ onartzen direla. Hala ere, organ horiek dituzten dimentsioak aintzat hartuta, eta orokorrean horiek autobusean gurpil-aulkientzat, haur-aulkientzat eta bizikletentzat gordetako eremuan kokatzen direla kontuan izanik, azken horiei ere sarbidea ez galarazteko, autobus bakoitzean sar daitezkeen gehienezko erosketako organ kopurua finkatu da.

Horrela, bada, autobus bakoitzean gehienez ere 4 erosketa organ egon daitezke une berean, autobusera igo daitezkeen gurpil-aulki, haur-aulki edota bizikleta batentzat behintzat espazio librea uzteko.



Debekuak:

• **Patinete elektrikoak sartzeko debekua**

Garraio Erregelamenduaren 25. artikuluko c eta d puntuen arabera. "Erabiltzaileentzako debekuak", 18. artikuluan adierazitakoez bestelako fardelak eramateari buruzkoak eta eragozpenak sor ditzaketen objektuak eramatea, pertsonen osotasun fisikoa arriskuan jartzea eta/edo ibilgailuari kalteak eragitea:

Segurtasun-arrazoiengatik, debekatuta dago ibilgailuetara igotzea patinete elektrikoak daramatzatenei.

Neurri horri eutsiko zaio, harik eta etorkizun hurbilean patinete elektrikoek gaur egun antzeko elementu elektronikoak dituzten beste produktu batzuek dituztenen antzeko homologazioak eta segurtasun-neurriak izan arte.

Debeku horrek ez die eragiten mugikortasun murriztua duten pertsonentzako scooter-ei (MUP), ez eta bizikleta elektrikoek ere, egungo araudiak horiei eusten baitie.

• **Haurrik ez daramaten kotxetxoak/orgak debekatzea**

19. artikulua arabera. "Umeen kotxe eta aulkietarako sarbidea":

"Ez da onartuko kotxe edo aulki irekirik sartzea, adingabea garraiatzen ez dutenean"

Reborn panpinak edo antzekoak daramatzaten kotxetxoak/orgatxoak, edo animaliak daramatzatenak, artikulua honetan adierazitakoarekin parekatuko dira, eta, beraz, ez dira ibilgailuetan onartuko.

3. HAUR-AULKIAN EDO HAUR-KOTXEAN DOAZEN 6 URTETIK BEHERAKO HAURREN DOHAINEKO BIDAIA TXARTELA ESKURATZEA

6 urtetik beherako haurren bidaia txartela eskuratzeko haurra bere haur-aulkian utzi beharko da eta gidariarengana hurbildu. Haurraren segurtasuna bermatzeko, hauraulkia edo haur-kotxea lotuta eta balazta jarrita egon behar da. Edonola ere, beti dago aukera bidaia txartela hirugarrengo batek eskuratzekoa, nolabait pertsona heldua umearengandik edo haurrengandik ez banatzeko.